

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2022ko irailaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

ORDENANTZA OROKORRA, ZERGEN ETA TOKI-ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA BILKETA ARAUTZEN DUENA

Kontutan hartu da ANTOLAKETA BATZORDEAK 2022ko irailaren 22an aho batez emandako irizpena

Proposamena Osoko Bilkurari, AHO BATEZ

Horiek horrela hau erabaki da aho batez:

ZERGEN ETA TOKI ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU SARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA BILKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA OROKORRA haserako onarpena ematea testu honekin:

1. artikulua. Xedea.

Ordenantzaren xedea da araudizko boterea erabiltzea, Toki Erregimenak Arautzen dituen Legearen 106.2 artikulua onartua, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak Udalak eta martxoaren 8ko NF 2/2005 Foru Arau Nagusian jasotzen dena zehaztu edo garatu behar dituen gaiak arautuaz.

2. artikulua. Lege Erregimena.

Zerga Kredituen eta zuzenbide publikoko beste dirusarreraren dirubilketaren gestioa honela arautuko da:

1. Hernaniko Udalaren Dirubilketarako Ordenantza honen bitartez.
2. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zerga-bilketa Araudia, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua.
3. Martxoaren 8ko 2/2005 Zerga Foru Arau Nagusia.

3. artikulua. Organoak.

Dirubilketa gestioa egitea ondoko organoei dagokie:

— Alkatea:

Zerga errolda, kitapen, eta borondatezko epeko erreziboetako buruzko Birjarpen errekurtsioak erabakitzen ditu.

Ordainketa epea luzatu edo zatikatzeko eskaerei erantzuten die, horren epea urtebete baino luzeagoa denean eta/edo 6.000 euro. baino gehiagoko kopurua denean.

Hirugarrenen erreklamazioak erabakitzen ditu.

Enbargatutako ondasunak besterentzea baimentzen du.

Udalaren ondasunak adjudika zea erabakitzen du.

Beste organoei eman ez zaizkien funtzio guztiak egiten ditu.

— Zinegotzi Ordezkaria.

Alkatearen ordezkoa da horrek agindutako gauzetan.

— Diruzaina.

Dirubiltze kudeaketa zuzentzen du borondatezko epean eta exekuzio epean.

Premiamendu probidentziak ematen ditu.

Enbargatzen probidentziak eta enbargatutako ondasunen salmenta probidentziak ematen ditu.

Exekuzio epean egiten dira birjarpen errekurtsioak erabakitzen ditu.

Ordaintzera behartua dagoenak eskatuta konpentsazioak erabakitzen ditu.

Ofizios Erakunde Publikoen kredituak konpentsatzen ditu.

Exekuzio prozedura eteteko eskaerak erabakitzen ditu.

Ordainketa epea luzatzeko eta ordainketa zatitzeko eskaerak erabakitzen ditu. Beti ere epea urtebetez azpikoa bada eta 6.000,00 euro baino gutxiagoko zorra bada.

Kredituak kobraezinak deklaritzen ditu.

Zorretan ardura deribazioak erabakitzen ditu zergetakoak nahiz bestelakoak izan.

Enbargatutako ondasunak baloratuko dituen funtzionario teknikoa izendatzen du.

Enkantean atera eta inori adjudikatu ez zaizkion ondasunak Udalarentzat adjudikatzearen egokitasunaz informatzen du.

4. artikulua. Egutegi fiskala.

Egutegi fiskala urtero onartuko da dagokion ekitaldi fiskalaren ordenantzen onarpenarekin batera.

5. artikulua. Dirubilketa Sistema.

Zergak eta zuzenbide publikoko sarrerak honela kobratuko dira:

1. Aldiroko epemuga eta jakinarazpen orokorreko erreziboak:

a) Borondatezko epean Udalaren baimena izan eta lankidetzan aritzen diren Erakunde laguntzaileetan edo interneten «nire ordainketa» izeneko pasabidearen bidez.

Helbideratutako erreziboa interesatuak adierazitako kontuan kobratuko da epearen azken egunean.

Helbideratzeak helbideratze-eskaeraren dataren ondoren egiten diren ordainagirietan ondorioa izango du

Helbideratu gabeko erreziboa zordunaren zerga helbidera bidaliko da, hori aurkeztu eta edozein Erakunde lankideetan ordain dezan. Aipatu agiria ez izanez gero, zordunak Herritarren harrera zerbitzuan (hhz) eskatuko du borondatezko epearen barruan.

b) Exekuzio epean, Udalaren baimena izan eta lankidetzan aritzen diren Erakunde laguntzaileetan edo interneten «nire ordainketa» izeneko pasabidearen bidez.

2. Zerga eta zuzenbide publikoko bestelako dirusarreraren kitapena.

a) Borondatezko epean Udalak baimendutako Erakunde laguntzaileen bulegoetan edo interneten nire ordainketa» izeneko pasabidearen bidez. Derrigorrezko izango da interesatuari dagokion kitapenari buruzko jakinarazpen indibiduala aurretik egitea.

b) Exekuzio epean, Udalaren baimena izan eta lankidetzan aritzen diren Erakunde laguntzaileetan edo interneten «nire ordainketa» izeneko pasabidearen bidez.

3. Salaketak eta isunak.

a) Oinezkoen eta trafiko legehausteengatiko isunak arautze dituen udal ordenantzak markatzen duen %90eko hoberia daukatenak, Udaltzainan, Herritarren harrera zerbitzuan (hhz) eta dagokion jakinarazpenak adierazten duen lekuan.

b) Isunak, borondatezko ordainketa eta exekuzio epean, Udalaren baimena izan eta lankidetzan aritzen diren erakundeetan edo interneten «nire ordainketa» izeneko pasabidearen bidez.

6. artikulua. Helbideratzea.

1. Subjektu pasiboek edozein Finantza Erakundetan helbideratu ahal izango dituzte zergen ordainketak.

2. Une jakin batean ordaintzeko betebeharra duten, eta aldizka mugaeguneratzen eta taldeka jakinarazten diren zerga guztiak, zerga batzuk (edo bat bakarrik) helbideratu ahal izango dira.

7. artikulua. Helbidea.

1.- Helbide fiskala erabakitzeko era arau batek berariaz arautzen ez badu, errekurtsio jakin bat kudeatzeko eta zergabilketarako helbidea ondorengoa izango da:

a) Pertsona fisikoentzat, beren ohiko bizilekua.

b) Pertsona juridikoentzat eta Sozietateen gaineko Zergari lotutako gainerako entitateentzat, sozietatearen helbidea, baldin eta beren negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan zentralizaturik badaude. Beste edozein kasutan, kudeaketa edo zuzendaritza hori non egiten den hartuko da kontuan.

c) Sozietate zibil eta nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan, beren kudeaketa eta zuzendaritza non egiten diren, hor izango da zerga helbidea.

2.- Zergadunak beretzat edo bere ordezkariarentzat beste helbidea izenda dezake, jakinarazpen administratiboak bertan jaso ahal izateko.

3.- Nolanahi ere, udal zergen subjektu pasiboek helbide aldaketak aitortzera behartuta daude eta baita Udaletik bidaltzen dizkieten jakinarazpenetan ager daitezkeen akatsak adieraztera ere.

4.- Baldin eta Udalak badaki ezen subjektu pasiboak udalaren eskumeneko tributu lokaletarako Ogasun Foralari deklaraturako bizilekua zergapekoen datu basean daukanaren ezberdina dela, zuzendu ahalko du hura, eta azken horren helbidera helarazi beharko dizkio kobrantzako kudeaketaren ondoriozko notifikazio guztiak.

5.- Interesatuak helbideari eta haren aldaketei buruz Udalari deklaraturako datuak zergapekoaren fitxa eguneratzeko baliatuko dira, afektatzen duten egintza administratiboak behar bezala notifikatzen saiatzeko xedearekin. Interesatuari erabilera horren berri emango zaio.

6.- Urte natural bakoitzean 6 hilabete baino gehiagoan atzerrian bizi diren subjektu pasiboak obligatuak egongo dira bizilekua Espainiako lurraldean duen ordezkari bat izendatzera.

8. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

Ordenantza ezberdinetan azaltzen diren salbuespen eta hobariak errenta sailetik kudeatu eta ebatziko dira.

9. artikulua. Itzulketak.

1. Bi aldiz pasa edo zenbatekoan akatsen bat egin delako.

Kobratu behar ez ziren zergak kobratu badira, ofizioz jardunez edo interesatuak Herritarren harreta zerbitzuan (hhz) eskatu ondoren itzuliko dira.

Udal Zerga-bilketak, dirua itzuli behar dela frogatutakoan, banku bidez egiteko agindua emango du.

2. Diru-itzulketa, erreziboa deuseztatu delako.

Gaizki kobratutakoa itzultzeko prozedurari ekiteko, ofizioz edo interesatuak eskatuta hasiko da.

Udalak, behin dirua itzuli behar dela frogatutakoan, banku bidez egiteko agindua eman du.

3. Ibilgailuari baja eman zaiolako ibilgailuen gaineko zergaren zati proportzionalaren itzulketa.

Udalak itzulketa banku bidez egiteko agindua emango du, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

10. artikulua. Ordainketak atzeratu eta zatitzeko modua.

1. Gipuzkoa Lurralde Historikoko Diru-bilketako Erregelamenduaren 37.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ordainketa atzeratzeko eta zatitzeko eskaeren tramitazioa eta ebazpena Hernaniko Udalak Ordenantza honetan onartutako ebazpenen arabera egingo da. Horren ezean, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Diru-bilketako Erregelamenduan ezarritako moduan aplikatuko da subsidiarioki.

2. Ordainketa atzeratzea edo zatikatzea, ordaindu behar duenak, momentu horretan ordaintzeko adina dirurik ez duenean bakarrik eskatuko da.

3. Atzeratzeko edo zatika ordaintzeko eskaera ordaintzeko betebeharra duenak egin behar du horretarako gaitutako inprimakian Herritarren harrera zerbitzuan (hhz) prestaturiko eskabidean egingo da, eta egoera ekonomiko-finantzarioa hautematen duten dokumentuak eskatu ahal izango dira.

4. Zatika ordaintzeko zorraren zenbatekoa, ordaintzeke dagoen zerga guztia izango da, eskatzaileak izan dezakeen lehenagoko zorra barne dela.

5. Zatikaturako zorraren ordainketaren helbideratzea egingo da horretarako eskabidean bankuko kontu-zenbakia adieraziko delarik eta interesik kobratzen ez diren kasuetan zatikako ordainagiriak emango zaizkie.

6. Ordainketa bat zatikatzea eskatzen denean eta zatikatu beharreko zorra betearazteko aldiaren barruan dagoenean, ezartzen zaion gaitutako %20koa izango da, baina ez da hasiko zordunaren ondarearen kontrako exekuziorik.

7. Ordaintzea atzeratzeko eta zatitzeko irizpide orokorrak ondorengo hauexek dira:

a) Aldizkako epemugaren eta jakinarazpen kolektiboaren ordainagiriak eta likidazioak

Ez da berandutza-interesik eskatuko borondatezko epean eskatutako ordainketa zatitzeko akordioetan, baldin eta aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten ordainketei eta likidazioei badagozkie, eta horien ordainketa osoa sortzen den ekitaldi berean egiten bada.

Baldintzak eta betekizunak:

-Prozedura interesdunak (ordainagiriaren titularrak edo haren legezko ordezkariak) eskatuta hasiko da.

-Ordainagiria edo likidazioa borondatezko aldiaren egon behar da eta 60 euro baino handiagoa izan.

-Eskatzaileak ez du ordaindu gabeko zorrik izan behar exekutiban.

-Sistema hau ezartzeko orduan errezipo baten zenbatekoaren arabera hartuko da, ez ordaintzera derrigortutako pertsonak kontzeptu bakoitzagatik eduki ditzakeen ordainagiri batzuen baturaren arabera.

-Ordainketa ordainagiri berrietan adierazitako ordainketa-epea amaitu baino lehen egingo da, Udalak baimendutako erakunde laguntzaileen bidez eta Interneten «nire ordainketa» izeneko pasabidearen bidez.

-Ordainketa gauzatuko ez balitz, ordaindu gabeko zatikiaz exekuzio aldiari emango litzaioke hasiera.

-Ordainketa zatikatuek hil bakoitzaren 15ean izango dute epemuga.

b) Beste zor batzuk geroratzea edo zatikatzea (aurreko puntuan sartu ez direnak)

- Zorra 60,00 euro baino txikiagoa bada ez da atzerapenik edo zatika ordaintzeko aukerarik emango, baldin eta aparteko arrazoiren ez bada.

- Zorra 60,00 eta 400,00 euro tartekoa bada, gehienez ere 6 hilez zatitu ahal izango da.

- Zorra 400,00 eta 6.000,00 euro tartekoa bada, gehienez ere 12 hilez zatitu ahal izango da.

- Zorra 6.000,00 euro baino handiagoa bada, gehienez ere 24 hilez zatitu ahal izango da.

8. Zatika ordaintzeko zorrak, 6.000,00 euro baino txikiagoa izanik- eta eskatutako epeak aurreko puntuetan aurreikusitako gabeak badira, Diruzaintza sailak erabakiko du.

9. Zatika ordaintzeko zorrak, 6.000,00 euro baino handiagoa izanik eta eskatutako epeak aurreko puntuetan aurreikusi gabeak badira, Alkateak edo Ogasuneko Ordezkeriak erabakiko du. Zatitu beharreko zorraren %20 aldeztatik ordaintzea eskatu ahal izango da.

10. Zorrak gehienez ere 3 hilabetez atzeratu ahal izango dira.

11. Ez da bermerik eskatuko ondorengo kasuetan:

- Zatika ordaintzeko eskabideak hileroko epemugatueta egiteko baldin bada, eta zatitu beharreko zorra 6.000,00 euro baino txikiagoa bada.

- Prozedura exekutiboan zorra kitatzeko adina ondare erregistro publikoan bahitzeko badaezpadako oharra egin bada, zorra bermatuztat joko da eta ez da beharrezkoa izango berme berria jartzea.

- Espedientean jasotako agiriak eta zatika ordaintzeko eskabidearekin ekarritakoa kontuan izanik, Alkateak derrigorreko berme hori ken dezake.

12. Zatikapenetan 2 epe jarraian ordaindu ezean suposatuko du bertan behera gelditzen dela

11. artikulua. Kobratu ezinak.

1. Kobratu ezinak joko dira zergak ordaintzeko garaian ordaindu behar zutenei eta gainontzeko arduradunei, balego, kobratzea ezinezkoa jotako hartzeoak.

2. Udaleko diruzainak kobratu ezinen proposamena egingo du, behin premiamenduzko prozedura bidez eta espedientean jasota egongo diren agirien arabera, zordun nagusiak eta berauez erantzungo lioketenak kaudimenik gabekoak edo egonleku ezezagunekoak balira.

Kaudimenik gabekoak joko dira bahitzeko moduko ondare eta eskubiderik gabeko zordunak. Bahitu ez litezkeen ondareztat hartuko dira zerga-bilketako zerbitzu buruaren ustetan bahitzeko kostua estaltzeko adineko balioa duen gauzarik ez dagoenean. Hori horrela, diruzainak jarriko du bahitutako ondarea gauzatzeko gutxienez kostako dena.

3. Diruzainaren proposamenez, Ogasun batzordeak emandako baimenarekin, Alkatearen Dekretu bidez kobraezintzat joko dira kobratzeko ahaleginak egin ostean huts egindakoak.

4. Kobratu ezintzat jotako zordunen zorrak behin-behinekotasunez iraungitzat joko dira, baldin eta derrigortasun epean berriro ez badira errehabilitatzen. Zorra behin-betiko iraungita geratuko da epe horretan ez bada errehabilitatzen.

5. Behin zorduna kobra ezintzat joz gero, epe horren osteko zorrei baja emango zaie aurreko aitortzenaz baliatuz, betiere beste arduradun edo obligaziodunik ez balego.

6. Diruzainak zordunaren gerorako kaudimenaren berri badu proposatuko du mailegua birgaitzeko. Proposamena onartu ondoren, zerga-kudeaketa sailak informatikoki erregistratuko du.

12. artikulua. Kreditu kobraezinak deklaratzeko proposamenetan ezarri beharreko irizpideak.

Kreditu kobraezinen kasuetarako irizpideak ezartzen dira, legezkotasunaren printzipioaren errespetua eta eraginkortasun administratiboa batera eman daitezen. Kredituak kobraezinak izendatu baino lehen irizpide horiek betetzen dituzten egiaztatu egin beharko da.

Kreditua kobraezina izango da eta hori buruzko proposamena egingo da ondorengo kasuetan:

a) 100 eurotik behera pilatutako zorreatatik irekitako espedienteak:

- Zordunak ez badu kontu-korronterik finantza-erakundeetan, edo dituen kontu korronteen bahiketa egiten saiatuta ez bada emaitzarik lortu.

b) 100 eurotik 400 eurora bitartean pilatutako zorreatatik irekitako espedienteak.

-Zordunak ez badu kontu-korronterik finantza-erakundeetan, edo dituen kontu korronteen bahiketa egiten saiatuta ez bada emaitzarik lortu.

-Zorduna ez badago alta emana besteren kontura langile gisa Gizarte-Segurantzaren, eta ondorioz ez badu kobratzen bahitu daitekeen nominarik.

c) 400 eurotik 800 eurora bitartean pilatutako zorreatatik irekitako espedienteak.

-Zordunak ez badu kontu-korronterik finantza-erakundeetan, edo dituen kontu korronteen bahiketa egiten saiatuta ez bada emaitzarik lortu.

-Zorduna ez badago alta emana besteren kontura langile gisa Gizarte-Segurantzaren, eta ondorioz ez badu kobratzen bahitu daitekeen nominarik.

-Zorra Gipuzkoako Foru Ogasunak, exekuzio epean, kontzeptu hori dela-eta Udalaritako kobratu gabeko zergadunen zerrendan ageri direnak.

d) 800 eurotik gora pilatutako zorreatatik irekitako espedienteak.

-Zordunak ez badu kontu-korronterik finantza-erakundeetan, edo dituen kontu korronteen bahiketa egiten saiatuta ez bada emaitzarik lortu.

-Zorduna ez badago alta emana besteren kontura langile gisa Gizarte-Segurantzaren, eta ondorioz ez badu kobratzen bahitu daitekeen nominarik.

-Zorra Gipuzkoako Foru Ogasunak, exekuzio epean, kontzeptu hori dela-eta Udalari bidalitako kobratu gabeko zergadunen zerrendan ageri direnak.

-Zordunak ez badu ondasun higiezinik bere izenean erregistratuta jabetza-erregistroan.

-Zordunak ez badu ondasun higigarririk, edo baldin badu, ondasun higigarri horrek 10 urte baino gehiago baditu.

13. artikulua. Premiamendu prozeduraren tramitazio egoera.

Premiamendu prozedura batean sartua badago zergadunak tramitazioaren egoeraren berri izateko aukera izango du. Era berean, lortu ahal izango du, berak ordainduta, espedientean dauden agirien kopia, baldin eta ez badituzte kaltetzen hirugarren batzuen interesak edo beste pertsona batzuen intimitatea, edo legeren batek horrela ezartzen badu. Ondorio horietarako, Udalak kopia horien kostua arautuko du.

14. artikulua. Erakunde Autonomo eta Udal Patronatuek ezarritako errekurtsuetan premiamenduzko prozedura bidez eginiko zerga-bilketa.

Erakunde Autonomo eta Udal Patronatuek, behin euren eskubideak kobratzeko borondatezko epea amaitu ondoren, eta Gida-zuzendaritza bakoitzak erabakia hartu ostean, udal zergabilketari euren zorrak kobratzeko premiamenduzko prozedura hasteko eskatuko diote.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau 2023eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Hori guztia Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan agindutakoa betetze arren argitaratzen da, guztiek honen berri izan dezaten eta arau horretan aurreikusitakoak eragina izan dezan.

Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatzea eta aldatzea onesten zuten erabakien aurka, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren dagokion Salaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dute interesatuek bi hilabeteko epe barruan, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Dena den, eta aipatutako arauak baimentzen duen bezala, interesatuek hautazko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratibo Foralaren aurrean, administrazioarekiko auzitarako bideari ekin aurretik, argitalpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera hasita hilabete bateko epean.

ERANSKINA

Zatikatzeko gehinezko epea eta aurkeztu beharreko bermeak eta diru aurrerakinak honakoak dira:

KOPURUA	BERMEA	GEHINEZKO EPEA	AURRERAPENA
< 60,00 €	Ez	Ez	Ez
60,00 – 400,00 €	Ez	6 hilabete	Ez
400,00 – 6.000,00 €	Ez	12 hilabete	Ez
>6.000,00 €	Bai	24 hilabete	Zenbatekoaren %20 eskatu ahal da

Hondamendi, alarma edo alerta-egoera, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, Alkatetzak luzatu ahal izango ditu emandako atzeratzeak edo zatikatzeko ordaintzeko epeak.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galarazi gabe.

Hernanin, 2022ko irailaren 27an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Bitarteko idazkaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU0de63976-155b-401b-89fc-8e789d434389**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>